Annexes

1) ALTABISCARRACO CANTUA :

Oyhu bat aditua izan da
Escualdunen mendien artetic
Eta etcheco jaunac, bere athearen aintcinean chutic,
Ideki tu beharriac, eta erran du : « Nor da hor ? Cer nahi dautet ? »
Eta chacurra, bere nausiaren oinetan lo zaguena,
Alchatu da, eta karrasiz Altabiscarren inguruac bethe ditu.

Première strophe de la version qui figure dans *Le Pars basque* de Francisque-Michel, Elkar, 1994.

2) ESCALDUNAK :

(ROLAN-EN KANTA)
« Oihu bat aditu da deia lazgarritan.
Eskalduna gelditu da ernerik athetan,
Erraten duelarik : nor da hor ? Zer nahi ?
Holako bozik hemen ez aditzen ohi. »
Strophe 1145 du poème de J.M. Hiribarren, version Euskal Editoreen Elkartea, 1994 (orthographe actualisée).

3) IRRINTZINA MENDIAN :

Ibañetan ere lehen
irrintzina aditu zen,
Arrolani bertutea
laster ziola lotsatzen,
Dei-adarraz debalde ziren
mendiak dardarikatzen :
Eskualdunen irrintzina zen
dei-adarrari nautsitzen.
Strophe 7 du chant de Jean Barbier, *Nere Kantuak* (1910), p. 3 à 5.

4) ESKUALDUN PHESTAK BAIGORRIN 1905-ean :

Orai irrintzinarien aldi.

Bada orotarik. On baino tchar gehiago. Gizon chahar batek baitezpada erakutsi nahi ukan derauku... erlastua zela eta ez gehiago irrintzina egiteko adinean. Oihanburu Itxassoukoa zen gehienen iduriko hobekienik ari, erditsutan haria luzesko zintzurretik emanikan ere ; bainan, gelditzean, hiru zinka igortzen zituen izagarriak, ez baita basa ihizirik hain ozen eta saminik egotz dezakenik. Aldi andana batez egin du, eta bethi ber-din, erakusten zaungularik irrintzinak baduela menderen mendetan iraun duen soinu bat, nehork orai bere nahitara alda ez dezakena. Harek du lehen saria ereman.

Bainan, bertze batzuek hobeki zakiten irrintzinak ondarrerat, hiru zinken aitzint-toan, daukan irrizko karrasia. Haletan non, irrintzinari guzien artean, ez baita agertu bat bakarrik, irrintzina bere osoan adiarazi daukunik.

J. Etchepare, *Buruchkak* (1910). Euskal Editoreen Elkartea, 1992, p.115-116.

5) EUSKO GUDARIAK :

Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko
Gerturik dugu odola
Bere aidez emateko.
Irrintzi bat entzun da
Mendi tontorrean :
Goazen gudari denak
Ikurriñen atzean !
Chant de marche des soldats basques de 1936.